



FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure irteerak aurrera eraman ahal izateko, lehenik **BIZIRIK** enpresako kideok ditugun baliabide eta gaitasunak jarri ditugu martxan, gure negozio eredua optimizatu ahal izateko. Negozio eredu hau aurrera ateratzeko egokia ikusten dugu **kanpoko eragileekin** aliantzak sortzea, betiere bi aldeentzat onuragarria izango den hitzarmena egiten dela ziurtatzen bada.

Maddi Ormaetxea:

- Web gunearen prestaketa eta antolaketa
- Sare sozialen kudeaketa
- Publizitatea

Ianire Azevedo

- Online eta telefono bidezko erreserben ardura eta jarraipena
- Profesionalekin kontaktatzea (irteeren berri emateko)

Nahia Cuadrado

- Administrazio eginkizunak (diru sarrerak eta diru irteerak)
- Enpresako langileen nominak eta kontratuak kudeatzea.

Maddi Usarralde

- Bezeroekin harremanak : harrera egitea , informazio partekatzea , ibilbideak elkarrekin egitea.
- Irteerak antolatzea
- Profesionalekin koordinatzea

Nahiz eta bakoitzak bere funtzio espezifikoak izango dituen, uneoro guztiak kontaktuan eta **koordinatuta** egongo gara, informazioa denon eskura dagoelarik.

Gure irteerak aurrera eramateko funtsezko **profesional** batzuekin harremanetan jarriko gara, hala nola, bezeroen esperientzia aberasteko.

- Biologoa
- Psikologoa
- Hezitzailea
- Botanikan aditua
- Basozaina
- Begiraleak

Profesionalak talde bakoitzaren arabera aukeratuko dira eta hauek taldearen ezaugarrietara egokitzen sahiatuko dira, hala nola, hiztegia aldatuz, talde kohesioa bermatuz, harremanak sustatuz...

Argi dago gure zerbitzuak aurrera eramateko **kanpoko hainbat baliabide** ezinbestekoak izango ditugula, ondorengo elkarte hauekin sortuko ditugu aliantzak:

- **Garraio zerbitzuarekin** adostuko dugu bezeroak Otsagabiako gure lokaletik Iratiko basora eramateko autobusa. Hauekin urte osorako hitzarmena egingo genuke, horrela prezioak negoziatzeko.
- **Euritako arropa** egiteko jostunen enpresa txiki batekin elkarlanean arituko ginateke, Euskal Herriko enpresa txiki batekin.
- Bezeroak **lo** eta **jateko lekua** izango duten ostatuarekin hitzarmen bat egingo genuke.

Garraio zerbitzua eta arroparen enpresarekin elkarlanean jartzeko momentuan, kontuan hartuko dugu eskainitako zerbitzu eta produktu hauek **ekologikoak** izatea, ingurumenari ahalik eta kalte gutxien egitea. Ezinbestekoa ikusten dugu puntu hau, ingurumena zaindu behar dugu eta hori bermatzea da gure enpresaren eginkizunetako bat.

Azaldu ditugun elkarte hauekin **hitzarmena** egiteak bi aldeentzako onurak ekarriko ditu. Onura horietaz hitz egiten dugunean, guk beraiei egingo diegun **publizitatez** ari gara eta trukean beraiek guri **beherapenak** egingo dizkigute prezioetan.